



Lurzoru ekosistema

Gai honekin zerikusia duten arloak

- NATUR ZIENTZIAK.

MATERIALAK

- ◆ Lurzoruaren biologiari buruzko informazioa ematen duten liburuak (adibidez, Investigando el suelo. Vivac bilduma. Teide).

HELBURUA


- Lurzoru ekosistemaren morfologia ezagutzea.
- Lurzoruak materiaren birziklapenean duen eraginaz jabetzea.

EMAN DEZAGUN basoko lurzoruan zer dagoen jakiteko egindako ikerketan hauek aurkitzen ditugula:

Izaki bizidunak: bakterioak, protozooak, onddoak, nematodoak, lur-zizareak, barraskiloak, kukurutxak, miriapodoak, (ehunzango edo milazangoak), araknidoak (akaro eta armiarmak), intsektuak

(tisanuruak, dipluruak eta inurriak), satorrak, satitsuak, landare sustraiak.

Beste osagai batzuk: eroritako hostoak, zuhaitz adarrak, belar ihartuak, goroldioak, animalia hilak, humusa, partikula solidoak, poroak eta arrakalak, hezetasuna, airea eta gas mineralak.



Ariketak

1. Azaldu aipatutako osagaien artean dauden erlazioak; honelakoak izan daitezke: "A" osagaia "B" osagaiarekin erlazionatzen da (adibidez, tisanuruak eroritako hostoak jaten dituzte); A-k B-n du eragina eta, aldi berean, B-k A-n du eragina (eroritako hostoek lurzoruaren hezetasuna gordetzen dute eta hezetasunak hostoen deskonposizioan laguntzen du).
2. Aipatutako izaki bizidunetarik, zein elikatzen dira materia organikoz? Zer bihurtzen dute materia hori? Nola birziklatzen du lurzoruak materia?
3. Azaldu zer ondorio jasango lituzkeen basoak sutea izan ostean.